

Herrian zer berri?

2026eko apirila

eh
bildu
**Laz
kao**



Gipuzkoako egoitzetako gatazka

Conflicto en las residencias de Gipuzkoa

Zaintzaren ikuspegi akademikoa

Punto de vista académico de los cuidados

Hernaniko zaintza eredutik Lazkaora

Del modelo de cuidados de Hernani a Lazkao

Usurbil: Herri zaintzailea

Pueblo cuidador

Elkarrizketa: Matiako zuzendaria, Erkuden Aldaz

Entrevista

Gipuzkoako egoitzetako gatazka: zaintza sistemaren krisia eta etorkizunaren erronka

Conflicto en las residencias de Gipuzkoa: crisis del sistema de cuidados y el reto del futuro

Prekariatatea eta lan-baldintzak zaintza sistemaren muinean Precariedad y condiciones laborales en el núcleo del sistema de cuidados

Azken hilabeteotan, Gipuzkoako adinekoen egoitzak gatazka laboral luze eta esanguratsu baten erdigune bihurtu dira. Zaintza-lanetan aritzen diren milaka langilek greba eta mobilizazio ugari egin dituzte lan-baldintzak hobetzeko, eta horrek agerian utzi du sektoreak urte luzez arrastaka daraman prekariatatea. Ez da gatazka puntual bat, ezta unean uneko desadostasun baten ondorioa ere.

Sektorearen egiturak berak azaltzen du egoeraren larritasuna. Gipuzkoan 5.000 langile inguru ari dira egoitza eta eguneko zentroetan lanean, gehienak emakumeak eta, gero eta gehiago, migratuak. Zerbitzua publikoa izan arren, kudeaketa, neurri handi batean, enpresa pribatuaren esku dago, eta langileen %70 inguruk irabazi-asmoko enpresetan egiten du lan. Sindikatuek salatu dutenez, eredu horrek lan-baldintzak eta ematen den arreta baldintzatzen ditu: enpresen helburua irabaziak handitzea denean, langileen baldintzak okertu egiten dira eta horrek zuzenean eragiten dio zerbitzuaren kalitateari.

Gainera, azken urteetan kontratazioan izan den bilakaerak prekariatatea areagotu du. Gaur egun, langileen ia erdiak lanaldi partzialeko kontratuak ditu. Portzentaje hori %55era igotzen da KABIA erakunde autonomoaren

En los últimos meses, las residencias de mayores de Gipuzkoa se han convertido en el centro de un conflicto laboral largo y significativo. Miles de trabajadoras de los servicios de cuidado han llevado a cabo numerosas huelgas y movilizaciones para mejorar sus condiciones laborales, lo que ha puesto de manifiesto la precariedad que el sector arrastra desde hace años. No se trata de un conflicto puntual ni del resultado de un desacuerdo momentáneo.

La propia estructura del sector explica la gravedad de la situación. En Gipuzkoa, cerca de 5.000 personas trabajan en residencias y centros de día, la mayoría mujeres y, cada vez más, personas migradas. Aunque el servicio es público, la gestión recae en gran medida en empresas privadas, y cerca del 70% del personal trabaja en empresas con ánimo de lucro. Según denuncian los sindicatos, este modelo condiciona tanto las condiciones laborales como la atención prestada: cuando el objetivo de las empresas es aumentar beneficios, las condiciones de las trabajadoras empeoran, lo que afecta directamente a la calidad del servicio.

Además, la evolución de la contratación en los últimos años ha aumentado la precariedad. Actualmente, casi la mitad de la plantilla tiene contratos a tiempo parcial. Este porcentaje sube al 55% en los centros dependientes del organismo autónomo



menpeko zentroetan, hau da Gipuzkoako Foru Aldundiak ardura zuzena duen zentroetan. Horrek guztiak ezegonkortasuna eta mendekotasuna handitzen ditu, askotan lanaldiak osatzeko prestasun osoa eskatzen baitaie. Horri gehitu behar zaio soldata arrakala handia - urtean 10.000 eurotik gorakoa kasu askotan- eta lan-karga handia, egoiliar bakoitzari eskaintzen zaion denbora mugatua delarik. Ondorioz, langileen lan-baldintzak ez ezik, eskaintzen den zaintzaren kalitatea bera ere baldintzatzen da.

KABIA, es decir, en los centros donde la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene responsabilidad directa. Todo ello incrementa la inestabilidad y la dependencia, ya que a menudo se les exige total disponibilidad para completar las jornadas. A esto hay que añadir una gran brecha salarial -superior a los 10.000 euros anuales en muchos casos- y una alta carga de trabajo, siendo limitado el tiempo que se ofrece a cada residente. Como consecuencia, no solo se ven afectadas las condiciones laborales, sino la propia calidad de los cuidados.

Negoiazioaren blokeoa eta gatazkaren luzapena

Bloqueo de la negociación y prolongación del conflicto

Gipuzkoako adinekoen egoitzetako lan-hitzar-menaren negoziazioa blokeatuta egon da azken 14 hilabeteetan eta joan den martxoaren 27an negoziazio mahaia deitu eta aktibatu den arren, tartean sektore honetan 20 greba egun eta zortzi egoitzetan 138 greba egun egin behar izan dituzte, horrek langileentzat, egoiliarrentzat eta haien familientzat suposatzen duen guztiarekin. Ondoren etorri da patronalaren proposamena.

Langileen gehiengoa ordezkatzeko ELA eta LAB sindikatuek hainbeste denbora pasa den arren patronalak proposamen bat ekartzea positibotzat jo dute, baina uste dute ez dela nahikoa ez duelako langile hauek bizi duten prekarietatea amaitzeko neurri eraginkorrik jasotzen.

La negociación del convenio laboral de las residencias de mayores de Gipuzkoa ha estado bloqueada durante los últimos 14 meses. Aunque el pasado 27 de marzo se convocó y activó la mesa de negociación, en este intervalo se han tenido que realizar 20 días de huelga en el sector y 138 días de huelga en ocho residencias, con todo lo que ello supone para trabajadoras, residentes y sus familias.

Posteriormente ha llegado la propuesta de la patronal. Los sindicatos ELA y LAB, que representan a la mayoría de las trabajadoras, consideran positivo que la patronal traiga una propuesta después de tanto tiempo, pero creen que no es suficiente porque no recoge medidas eficaces para acabar con la precariedad que viven estas personas.

Zaintza sistema publiko eta duin baterantz

Hacia un sistema de cuidados público y digno

Testuinguru honetan kokatzen dugu EH Bildutik zaintzaren inguruko eztabaida. Aspalditik diogu ezin dela gai hau bazterrean utzi: gure jendartea zahartzen ari da, eta gero eta zaintza behar handiagoak izango ditugu. Horregatik, zaintza gure politikaren erdigunean kokatzen dugu, eta horrela jarraituko dugu pertsona guztiek behar duten arreta duina jasotzen duten arte.

Baina ezin dugu zaintzaz termino abstraktuetan hitz egin. Zaintza duina eta unibertsala izan behar da, hau da, pertsona guztiek izan behar dute eskubidea kalitatezko arreta jasotzeko, euren egoera ekonomikoa edozein dela ere. Eskubide bat da, ez pribilegio bat. Eta hori bermatzeko, sistema publiko sendo bat behar da, desberdintasunak saihestuko dituena. Eta helburu hori lortzeko ezinbestekoa da zaintza lanak egiten dituzten pertsonen lan-baldintza duinak eta bidezkoak izatea.

Ildo horretatik, 2024. urteko politika orokorreko osoko bilkuran, Batzar Nagusiek mandatu argi bat eman zioten Gipuzkoako Aldundiari. Berritza tokatzen den adinekoen egoitzetako lan-hitzarmenean lortu dezala adostasuna gehiengo sindikal eta patronalarekin. Aho batez onartutako mozioa izan zen. Baina 2026. urteko apirila da eta oraingo ez da halakorik lortu. Eta horrek argi erakusten du, besteak beste, aurreikuspen faltaz ari dela Gipuzkoako gobernuak, ematen zaizkion mandatuak betetzeko garaian.

Horregatik, EH Bildutik proposamen argia egiten dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiak urrats bat aurrera eman dezala eta negoziazioan modu aktiboan inplikadadila, patronalarekin eta sindikatuekin hiruko mahaia osatuz. Azken finean, zaintza sistemaren etorkizuna jokoan dago, eta ezinbestekoa da gaur



En este contexto situamos desde EH Bildu el debate sobre los cuidados. Llevamos tiempo diciendo que no se puede dejar este tema de lado: nuestra sociedad está envejeciendo y tendremos necesidades de cuidado cada vez mayores. Por ello, situamos los cuidados en el centro de nuestra política y seguiremos haciéndolo hasta que todas las personas reciban la atención digna que necesitan.

Pero no podemos hablar de cuidados en términos abstractos. El cuidado debe ser digno y universal; es decir, todas las personas deben tener derecho a recibir una atención de calidad, independientemente de su situación económica. Es un derecho, no un privilegio. Y para garantizarlo, se necesita un sistema público sólido que evite las desigualdades. Para lograr este objetivo, es imprescindible que las personas que realizan los trabajos de cuidado tengan condiciones laborales dignas y justas.

En esta línea, en el pleno de política general de 2024, las Juntas Generales dieron un mandato claro a la Diputación de Gipuzkoa: que logre el acuerdo con la mayoría sindical y patronal en el convenio de residencias de mayores que toca renovar. Fue una moción aprobada por unanimidad. Sin embargo, estamos en abril de 2026 y por ahora no se ha conseguido tal objetivo. Esto demuestra, entre otras cosas, la falta de previsión del Gobierno de Gipuzkoa a la hora de cumplir los mandatos que se le otorgan.

Por ello, desde EH Bildu hacemos una propuesta clara: que la Diputación Foral de Gipuzkoa dé un paso adelante y se implique de forma activa en la negociación, formando una mesa a tres bandas con la patronal y los sindicatos. Al fin y al cabo, el futuro del sistema de cuidados está en juego y es indispensable empezar a superar la precariedad actual.

Zaintzaren ikuspegi akademikoa

Punto de vista académico de los cuidados

Zaintzak gero eta leku handiagoa hartzen du eztabaida publikoan zein akademikoan, eta hori ez da kasualitatea. Azken urteetan gero eta nabarmenagoa da gizartearen eguneroko funtzionamendua -etxeetan, komunitateetan zein instituzioetan- ezin dela ulertu zaintza kontuan hartu gabe. Beste modu batera esanda, zaintza ez da bigarren mailako osagai bat: gizarteari eusten dion oinarri nagusietakoa baizik.

Hala ere, zaintzaz aritzean, oinarrizko galdera bat agertzen da maiz: nork egiten du lan hori, eta zein baldintzatan? Azken ikerketek eta eztabaida akademiko zein sozialek erakusten dute errealitatea askotarikoa eta konplexua dela. Alde batetik, zaintza ezinbestekoa da pertsonen ongizaterako, bereziki bizitzako une ahulenetan -haurtzaroan, zahartzaroan edo gaixotasun garaian-. Bestetik, lan hori sarritan ikusezin bihurtzen da, eta ez da gutxitan baldintza prekarioetan gauzatzen.

Azkenaldian egindako hainbat topaketatan gai horiek sakon landu dira, eta ikertzaileek, zaintza-lanetan aritzen direnek eta gizarte-eragileek ikuspegi anitz partekatu dituzte. Elkarrizketa horietatik ondorio nagusi bat azaleratu da behin eta berriro: gaur egungo zaintza-eredua krisian dago. Eredu horrek, izan ere, neurri handi batean familien gain uzten du zaintzaren ardura, eta horrek tentsio handiak sortzen ditu, bereziki gizartea zahartzen ari den testuinguru batean.

Horri lotuta, nabarmendu da zaintza-lanen banaketa ez dela neutrala. Sektorea oso feminizatu dago, eta askotan emakume migratuek betetzen dituzte lanpostu horiek. Horrek desberdintasun mota ugari pilatzen ditu: generoarekin, jatorriarekin eta lan-eskubideekin lotutakoak. Ondorioz, zaintza-lan askok ez dute behar adinako aitortza sozialik jasozten; ezta babes juridiko nahikorik ere.

Eztabaida horietan beste ideia giltzarri bat ere agertu da: arazoa ez dela maila indibidualen kokatzen, egiturazkoa baizik. Hau da, ez da

persona edo familia jakin batzuen antolamenduari buruzko auzia; gizarte osoaren antolaketarekin du zerikusia. Horregatik, gero eta gehiago azpimarratzen da zaintza ez dela esparru pribatura mugatu behar. Aitzitik, politika publikoetan, erakundearen funtzionamenduan eta komunitatearen antolaketan txertatu behar da.

Ikuspegi horretatik abiatuta, hainbat proposamen jarri dira mahai gainean. Besteak beste, zaintza-lanen baldintzak hobetzeko neurriak planteatu dira, lan-eskubideen bermea indartzea edo informazio eta bitartekaritza sistemak garatzea. Era berean, gero eta ozenago adierazten da zaintza-eredu publikoago eta bidezkoago baten beharra, non ardura ez den familia gutxi batzuen gain uzten, baizik eta kolektiboki antolatzen den.

Horrez gain, zaintzaren inguruko eztabaidek dimentsio globala ere hartu dute. Hainbat herrialdeetako esperientziak alderatzean, antzeko joerak identifikatu dira: zaintza-lanaren gutxiespena, lan-baldintza ezegonkorrak eta babes juridiko mugatua. Hala eta guztiz ere, nazioarteko esperientziak erakusten dute aldaketarako aukera badagoela, eta zenbait tokitan garatzen ari diren eredu berriek -sistema publiko sendoagoek edo komunitatean oinarritutako ekimenek- bestelako bideak irekitzen dituztela.

Azken finean, zaintzaren inguruko eztabaidak galdera sakon bat jartzen du mahai gainean: nolako gizartea antolatu nahi dugu? Zaintza benetan baloratzen duen gizarte batean, lan hori ez litzateke ez ikusezina ezta prekariora ere izango, aitortua, babestua eta partekatua baizik.

Izan ere, egia simple baina sakon bat dago honen guztiaren oinarrian: pertsona orok behar du zaintza bizitzako uneraren batean, eta, era berean, guztiok gara beste norbaiten ongizatearen parte. Horregatik, zaintza ulertzea ez da soilik arazo sozial bat ulertzea, gure bizitzaren oinarriak ulertzea baizik.

El cuidado ocupa un lugar cada vez más relevante tanto en el debate público como en el académico, y esto no es casualidad. En los últimos años, es cada vez más evidente que el funcionamiento diario de la sociedad -en los hogares, comunidades e instituciones- no puede entenderse sin tener en cuenta los cuidados. Dicho de otro modo, el cuidado no es un componente secundario, sino uno de los pilares principales que sostiene a la sociedad.

Sin embargo, al hablar de cuidados, surge con frecuencia una pregunta fundamental: ¿quién realiza ese trabajo y en qué condiciones?. Las investigaciones recientes y los debates tanto académicos como sociales muestran que la realidad es diversa y compleja:

En varios encuentros realizados recientemente se han abordado estos temas en profundidad, donde investigadores, trabajadores del cuidado y agentes sociales han compartido diversas perspectivas. De estos diálogos ha surgido una conclusión principal: **el modelo de cuidados actual está en crisis.**

Este modelo delega, en gran medida, la responsabilidad de los cuidados en las familias, lo que genera grandes tensiones, especialmente en un contexto de envejecimiento social. Además, se ha subrayado que la distribución de estas tareas no es neutral: el sector está muy feminizado y, a menudo, son las **mujeres migrantes** quienes ocupan estos puestos. Esto acumula múltiples tipos de desigualdad relacionados con el género, el origen y los derechos laborales. Como consecuencia, muchos trabajos de cuidado no reciben el reconocimiento social ni la protección jurídica suficiente.

En estos debates ha aparecido otra idea clave: el problema no es de carácter individual, sino que es

estructural. No se trata de la organización de personas o familias concretas, sino que tiene que ver con el modo de organización de toda la sociedad. Por ello, se subraya que el cuidado no debe limitarse al ámbito privado, sino que debe integrarse en:

Partiendo de esta visión, se han puesto varias propuestas sobre la mesa, como mejorar las condiciones laborales, reforzar la garantía de derechos o desarrollar sistemas de información y mediación. Asimismo, crece la demanda de un **modelo de cuidados más público y justo**, donde la responsabilidad no recaiga en unas pocas familias, sino que se organice de forma colectiva.

Esta discusión ha tomado una dimensión global. Al comparar experiencias de diversos países, se identifican tendencias similares: menosprecio del trabajo de cuidado, condiciones laborales inestables y protección jurídica limitada. No obstante, las experiencias internacionales también muestran que el cambio es posible a través de sistemas públicos más sólidos o iniciativas comunitarias.

En definitiva, el debate sobre los cuidados plantea una pregunta profunda: **¿qué tipo de sociedad queremos organizar?** En una sociedad que valora realmente el cuidado, este trabajo no sería invisible ni precario, sino reconocido, protegido y compartido. Existe una verdad sencilla pero profunda en la base de todo esto: todas las personas necesitan cuidados en algún momento de su vida y, del mismo modo, todos formamos parte del bienestar de otra persona. Por eso, entender el cuidado no es solo entender un problema social, sino comprender los cimientos de nuestra propia vida.

Aitziber Azurmendi Imaz, EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea



Hernaniko zaintza eredutik lazkaora: ikasgaiak eta aukerak

Del modelo de cuidados de hernani a lazkao: lecciones y oportunidades



Hernanin egindako zaintza-jardunaldiak

Azken urteotan gero eta ageriagoa da zaintza-aren krisia: biztanleriaren zahartzea, mendekotasun egoeren hazkundea eta familia egituren aldaketa direla medio, egungo sistemek ez dute herritarren ongizatea bermatzeko gaitasunik. Begi-bistakoa da zaintzak antolatzeko moduak ez direla nahikoak eta eraldaketa sakona behar dela.

Gainera, ikuspegi feminista batetik, zaintza eskubide kolektiboa da, elkar zaintzan oinarritua; horrek esan nahi du ardura komunitate osoarena izan behar dela eta ezin dela soilik familien edo, historikoki egin den bezala, emakumeen bizkar geratu, ezta merkatu kapitalistaren esku ere.

Hernaniko ereduak: egiturak eta komunitatearen aktibazioa

Testuinguru horretan, Hernanik bide berrizaillea urratu du, zaintza sistema publiko-komunitario baten aldeko apustua eginez. 2020an egindako diagnostiko sendo batetik abiatuta, hainbat tresna eta egitura jarri dituzte martxan. Nabarmenena "Zaintza Mahaia" da, zaintza politikak modu koordinatuan lantzea

En los últimos años, la crisis de los cuidados es cada vez más evidente: debido al envejecimiento de la población, el aumento de las situaciones de dependencia y el cambio en las estructuras familiares, los sistemas actuales no tienen capacidad para garantizar el bienestar de la ciudadanía. Es obvio que las formas de organizar los cuidados no son suficientes y que se necesita una transformación profunda.

Además, desde una perspectiva feminista, el cuidado es un derecho colectivo basado en el apoyo mutuo; esto significa que la responsabilidad debe ser de toda la comunidad y no puede recaer solo sobre las familias o, como históricamente ha sucedido, sobre las mujeres, ni tampoco quedar en manos del mercado capitalista.

El modelo de Hernani: estructuras y activación de la comunidad

En este contexto, Hernani ha abierto un camino innovador apostando por un sistema de cuidados público-comunitario. Partiendo de un diagnóstico sólido realizado en 2020, han puesto en marcha diversas herramientas y estructuras. La más destacada es la "Mesa de Cuidados" (Zaintza Mahaia), que permite abordar las políticas de cuidados de



ahalbidetzen duena, ikuspegi integrala bermatuz. Aldi berean, herritarren kontzientziazioan ere sakondu dute, zaintzaileen eta zainduen ongizatea erdigunean jarritz.

Baina Hernaniko esperientziaren indargune nagusietako bat komunitatearen aktibazioa da. Horren adibide da "Auzozaintza" sare publiko-komunitarioa. Ekimen honek bakardade egoera ez hautatuan dauden adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzea du helburu, harreman sozialak sustatuz, autonomia indartuz eta herriko dinamikan parte hartzea erraztuz. Proiektua tokiko eragileekin elkarlanean garatzen da, eta herritarrak beraiek ere "auzozain" bihurtzeko gonbita egiten du.

Lazkaoko ikasgaiak

Esperientzia honek hainbat ikasgai interesgarri eskaintzen ditu Lazkaorentzat, are gehiago une honetan diagnostiko prozesua eta zaintza-mahaia martxan jarri direnean. Zaintza publiko-komunitarioa izan dadin, diagnostikoak benetan parte-hartzailea izan behar du, ez soilik kontsulta puntualetan oinarritua, baizik eta herriko errealitate anitzak -zaintzaileak, zainduak, langileak, familiak, tokiko eragileak- modu aktiboan eta jarraituan txertatuko dituena. Era berean, zaintza-mahaia ez luke izan behar soilik udal egituren arteko koordinazio espazio bat; aitzitik, komunitateko eragileentzat irekia eta eraginkorra izan behar du. Bestela, arriskua dago zaintza politika publikoak goitik behera diseinatzeko, komunitatearen benetako inplikaziorik gabe. Zaintza ez da soilik zerbitzu bat: harreman sareak, komunitatea eta auzolana indartzeko aukera ere bada.

forma koordinada, garantizando una visión integral. Al mismo tiempo, han profundizado en la concienciación ciudadana, situando en el centro el bienestar tanto de las personas cuidadoras como de las cuidadas.

Pero uno de los principales puntos fuertes de la experiencia de Hernani es la activación de la comunidad. Ejemplo de ello es la red público-comunitaria "Auzozaintza". Esta iniciativa tiene como objetivo mejorar la calidad de vida de las personas mayores que se encuentran en situación de soledad no deseada, fomentando las relaciones sociales, reforzando la autonomía y facilitando su participación en la dinámica del pueblo. El proyecto se desarrolla en colaboración con agentes locales e invita a los propios ciudadanos a convertirse en "cuidadores del barrio" (auzozain).

Lecciones para Lazkao

Esta experiencia ofrece varias lecciones interesantes para Lazkao, más aún en este momento en el que se han puesto en marcha el proceso de diagnóstico y la mesa de cuidados.

Para que el cuidado sea público-comunitario, el diagnóstico debe ser realmente participativo, incorporando de forma activa y continua las diversas realidades del pueblo: cuidadores, cuidados, trabajadores, familias y agentes locales.

Asimismo, la mesa de cuidados no debería ser solo un espacio de coordinación entre estructuras municipales; al contrario, debe ser abierta y eficaz para los agentes de la comunidad. De lo contrario, existe el riesgo de diseñar políticas públicas de cuidados "de arriba abajo", sin una implicación real de la comunidad.

El cuidado no es solo un servicio: es también una oportunidad para fortalecer las redes de relaciones, la comunidad y el trabajo comunitario (auzolana).



Hernaniko Maitelan kooperatibako langile-bazkideak

Etorkizuneko galderak: zer da zaintza publiko-komunitarioa?

Hernanik erakutsi du zaintzaren eraldaketa posible dela, baldin eta politika publikoak eta komunitatearen indarra uztartzen badira. Lazkaon ere, neurri egokiek, antzeko bide bat jorratzeko aukerak badaude: zaintza erdigunean jarriko duen herri eredu eraikitzeko, pertsonen duintasuna eta bizitza duinak bermatzeko. Baina bide hori zehazterakoan, ezinbestekoa da zertaz ari garen argi adieraztea.


Zaintza publiko-komunitarioaz ari garenean, zertaz ari gara zehazki? Nahikoa al da udal baliabideak handitzea, ala beharrezkoa da boterea eta erabakiak partekatzea? Nork definitzen ditu lehentasunak: teknikariek eta ardura-dun politikoez, ala eguneroko zaintzan ari direnek ere badute hitza? Zein espazio sortzen ari dira herritarren parte-hartze erreal eta eraginkorrerako? Parte-hartzea informazioa jasotzera mugatzen al da, edo erabakietan eragiteko gaitasuna ere badu? Eta komunitatea, zein lekutan kokatzen da: hartzaile pasibo gisa ala subjektu aktibo gisa?

Azken batean, zaintza sistema berri bat eraikitzeko, prest al gaude harreman sareak, auzolana eta elkarren arteko ardura erdigunean jartzeko, zerbitzu logika hutsetik harago?

Galdera hauek ez dira hutsalak.

Aitzitik, funtsezkoak dira benetan eredu eraldatzaile bat eraikitzeko.

Lazkaok abiatu duen bideak aukera handiak ireki ditzake, baina orain erabakiko da zein norabide-tan sakondu: zaintza publiko-komunitarioaren muinari helduz ala hura hustuz.



Hernani burujabearen lehentasun handia du zaintzak

Preguntas de futuro: ¿qué es el cuidado público-comunitario?

Hernani ha demostrado que la transformación de los cuidados es posible si se combinan las políticas públicas y la fuerza de la comunidad. En Lazkao también existen oportunidades para recorrer un camino similar con las medidas adecuadas: para construir un modelo de pueblo que sitúe el cuidado en el centro y garantice la dignidad de las personas.

Sin embargo, al definir ese camino, es imprescindible expresar claramente de qué estamos hablando. Cuando hablamos de cuidado público-comunitario, ¿de qué estamos hablando exactamente?:

¿Es suficiente con ampliar los recursos municipales o es necesario compartir el poder y las decisiones?

¿Quién define las prioridades: los técnicos y responsables políticos, o también tienen voz quienes se ocupan de los cuidados diarios?

¿Qué espacios se están creando para una participación ciudadana real y efectiva?

¿Se limita la participación a recibir información o tiene también capacidad de influir en las decisiones?

¿Y la comunidad, en qué lugar se sitúa: como receptor pasivo o como sujeto activo?

En definitiva, para construir un nuevo sistema de cuidados, ¿estamos dispuestos a situar las redes de relaciones, el trabajo comunitario y la responsabilidad compartida en el

centro, más allá de una mera lógica de servicios? Estas

preguntas son fundamentales para construir un

modelo verdaderamente transformador. El camino

emprendido por Lazkao puede abrir grandes

oportunidades, pero ahora se decidirá en qué

dirección profundizar: abordando la

esencia del cuidado público-comunitario o

vaciándolo de contenido.

Usurbil, Herri zaintzailea

Pueblo cuidador

Zerk egiten gaitu herri?"

Galdetu zioten bere buruari usurbildarrek. Jaiotzak, hizkuntzak edo hizkerak, lan-lekuak, bikotekideak, pentsaerak, erlijioak...?

Eta ondorioztatu zuten, herria egiteko legamiarik trinkotzaileena zaintza dela, eta, ondorioz, Usurbil elkar zaintzen duen herri izateko eraldatzeari ekin zioten.



Agurtzane Solaberrieta alkatea Usurbil herri zaintzaileari buruzko argibideak ematen

Izan ere zaintza ez da asistentzia hutsa. Zaintza askoz kontzeptu zabalagoa da Usurbilen. 8/80 kontzeptua (zortzi urteko haurrak eta laurogeiko helduak jare, eroso eta lasai kalean ibiliko direna), 50 etxebizitzako parke publiko batekin etxebizitza behar larrian daudenak eta behar bereziak dituztenak hornitzen dituenak, zaintzaileak zaintzeaz bereziki arduratzen dena...

Zaintza askoren ahotan dabilen hitza dugu XXI. mende honetan, baina leku gutxitan eman zaio Usurbilen adinako gradurik. XXI. mendeko erroka nagusietako bat izanik, hamarkada bat barru (2030ean, 2018-2019 inguruan ekin baitzioten proiektuari) zein egoeratan egin nahiko luketen jaso zuten **misioan: norbere bizitza-proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzunkidetasuna, eragileen arteko lankidetzeta, eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna** ardatz izango dituenak.

Misioa abiapuntu, hura garatzeko helburu zehatzak ezarri zituzten; helburu lorgarri eta neurgarriak: 65 urtetik gorako pertsonen % 25ek bere zaintza-plana izatea, 5 auzotan % 25 gizonezkoak izango ziren zaintza-sareak abiaraztea, etxez

"¿Qué nos hace pueblo?" Se preguntaron los habitantes de Usurbil. ¿El nacimiento, la lengua o el dialecto, el lugar de trabajo, la pareja, la forma de pensar, la religión...? Y concluyeron que la levadura más aglutinadora para hacer pueblo es el cuidado y, en consecuencia, emprendieron la transformación para que Usurbil sea un pueblo que se cuida mutuamente.

De hecho, el cuidado no es mera asistencia. El cuidado es un concepto mucho más amplio en Usurbil. El concepto 8/80 (en el que tanto niños de ocho años como adultos de ochenta caminen por la calle de forma libre, cómoda y tranquila), el que abastece con un parque público de 50 viviendas a quienes tienen una necesidad urgente de vivienda y necesidades especiales, el que se ocupa especialmente de cuidar a las personas cuidadoras...

El cuidado es una palabra que está en boca de muchos en este siglo XXI, pero en pocos lugares se le ha dado un grado como el de Usurbil. Siendo uno de los principales retos del siglo XXI, recogieron en su misión en qué situación les gustaría estar dentro de una década (en 2030, ya que emprendieron el proyecto en torno a 2018-2019): lograr un modelo de cuidado integral y digno que responda al propio proyecto de vida, y que tenga como ejes la correspon-

etxeko zerbitzua jasotzen dutenen eta zaintza-rako prestazioa jasotzen dutenen kopurua orekatzea eta zaintza-langileen eta -familien % 50 zaintza-ekosisteman egotea.

Zaintza-eredu berriak pertsona bakoitzari bere neurriko bizi-plana diseinatu nahi dio. Denak ahul eta menpekotzat hartzeari utzi eta plan bat diseinatu bere bizitzari zentzua emango diona.

Usurbilgo zaintza-eredu berriak kontuan hartu nahi ditu zaintzailearen eskubideak eta duintasuna. Guztiok dugu zainduak izateko eskubidea; ez, ordea, beste pertsona baten eskubideen kaltetan. Duintasuna eta eskubideak berdin bermatu behar zaizkie lotura afektibotik zaintzen duten pertsoneri eta zaintzaile profesionalei. Hori erantzunkidetasunetik eta komunitate osoaren inplikaziotik lortzen da.

Oinarri horien ganean eraiki den zaintza-sistemak oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eraldatu ditu. Hasteko, administrazioa bera ere eraldatu behar izan da. Usurbilen egin dituzte moldaketak, eta Usurbilgo alkateak, Agurtzane Solaberrietak, dei egiten die gainerako administrazioei eginkizun horretan erritmoak bizkor ditzaten. Zaintza-zerbitzuak ekosistemaren logikan kokatu nahi dituzte, etxeko arretan eragin nahi dute, zaintza langileak duindu, ahaldundu eta komunitatean integratu nahi dituzte. Usurbilen zerbitzuetan lanean ari diren langileentzako harrera-planak ere pentsatuak dituzte.

sabilidad, la colaboración entre agentes, y la profesionalización y dignidad de las trabajadoras del cuidado.

Partiendo de la misión, establecieron objetivos concretos para desarrollarla; objetivos alcanzables y medibles: que el 25 % de las personas mayores de 65 años tenga su propio plan de cuidados, poner en marcha redes de cuidado en 5 barrios en las que el 25 % sean hombres, equilibrar el número de personas que reciben el servicio de ayuda a domicilio y el de quienes reciben la prestación para cuidados, y que el 50 % de las trabajadoras del cuidado y de las familias estén integradas en el ecosistema de cuidados.

El nuevo modelo de cuidados pretende diseñar un plan de vida a la medida de cada persona. Dejar de considerar a todas las personas como débiles y dependientes, y diseñar un plan que dé sentido a su vida.

El nuevo modelo de cuidados de Usurbil quiere tener en cuenta los derechos y la dignidad de la persona cuidadora. Todos tenemos derecho a ser cuidados; pero no en perjuicio de los derechos de otra persona. La dignidad y los derechos deben garantizarse por igual a las personas que cuidan desde el vínculo afectivo y a las cuidadoras profesionales. Esto se logra desde la corresponsabilidad y la implicación de toda la comunidad.

El sistema de cuidados construido sobre estas bases ha transformado los Servicios Sociales básicos. Para empezar, la propia administración ha tenido que transformarse. En Usurbil han realizado adaptaciones, y la alcaldesa de Usurbil, Agurtzane Solaberrieta, hace un llamamiento al resto de administraciones

para que aceleren sus ritmos en esa tarea. Quieren situar los servicios de cuidado en la lógica del ecosistema, quieren incidir en la atención domiciliaria, y pretenden dignificar, empoderar e integrar en la comunidad a las trabajadoras del cuidado. En Usurbil también tienen pensados planes de acogida para las trabajadoras que están empleadas en los servicios.

Zaintza-bisitak antolatzen dituzte hilean behin, zaintza-ekosistemaren xehetasunak emateko



Zaintza sistema publiko eta duin baterantz

Tres equipamientos cuidadores complementarios entre sí



Txirikordan harrera egiten dizun hormairudia

TXIRIKORDA

Egitasmo guztiz berritzailea. Gazteekin eta 65 urtetik gorakoekin egindako egindako parte hartzeko prozesu banatan jasotako ideietatik bururatu zitzaian martxan jartzea.

Txirikorda 16 etxebizitza koskor dituen eraikin bat da, hiru solairukoa, kalearen, eta herriarekin oso lotua. 16 apartamentu horiez gain, espazio komun pila dituzte: garbitegia, txokoa, taberna lege bat, bilera gela... Balkoiak berak ere ez dira pribatuak. Balkoi bakoitzera hiruzpalau apartamentutatik ateratzen da.

Gazteen emantzipazio-beharrari eta helduen konpainia beharrari erantzun nahi izan zioten Txirikorda pentsatu zutenean. Gaur egun, 16 etxebizitzatatik 11tan gazteak bizi dira eta 5etan helduak.

Eta eraikina aurrerakoa bada, berrikuntza bat, zer esan kudeatzeko moduz. Txirikordan, erabiltzaile bakoitzak bere diru-sarreraren arabera ordainketa egiten du alokairuan eta hornidura gastuetan. Norbere diru-sarreraren % 25 bideratzen ditu horretara. Horrez gain, komunitateari 8 ordu eskain behar dizkio kide bakoitzak. 8 ordu horietan egin beharreko lanak zein diren asanblean erabakitzen dute. Hilean behin edo hamabost egunean behin egiten dituzte asanbleak, beharren arabera.

EGURTZEGI

Egurtzegi zaharren egoitza bat da, baina honetan ere lortu dituzte herritarrentzako abantailak. Hasteko, beste egoitza pribatu batzuetan hilean 4000 euro izaten da erabiltzaile bakoitzak ordaintzen duena; Egurtzegi, berriz, plaza

TXIRIKORDA

Un proyecto totalmente innovador. Se les ocurrió ponerlo en marcha a partir de las ideas recogidas en sendos procesos participativos realizados con jóvenes y personas mayores de 65 años.

Txirikorda es un edificio con 16 pequeñas viviendas, de tres plantas, a pie de calle y muy vinculado al pueblo. Además de esos 16 apartamentos, cuentan con un gran número de espacios comunes: lavandería, "txoko", una especie de taberna, sala de reuniones... Los propios balcones tampoco son privados; a cada balcón se accede desde tres o cuatro apartamentos.

Cuando pensaron en Txirikorda, quisieron responder a la necesidad de emancipación de los jóvenes y a la necesidad de compañía de los adultos. Actualmente, en 11 de las 16 viviendas viven jóvenes y en 5, personas adultas.

Y si el edificio es progresista, una innovación, qué decir del modo de gestión. En Txirikorda, cada usuario realiza un pago en concepto de alquiler y gastos de suministros en función de sus ingresos. Destina a ello el 25 % de sus propios ingresos. Además, cada miembro debe ofrecer 8 horas a la comunidad. Las tareas a realizar en esas 8 horas se deciden en asamblea. Realizan asambleas una vez al mes o cada quince días, según las necesidades.

EGURTZEGI

Egurtzegi es una residencia de ancianos, pero en ella también han logrado ventajas para la ciudadanía. Para empezar, en otras residencias privadas lo que paga cada usuario son 4000 euros al mes; en Egurtzegi, en cambio, todas las plazas están

guztiak Aldundiarekin kontzertatuta daude, eta 2000 eurokoa (erdia) izaten da gehieneko kostea. Paraje zoragarrian dago Egurtzegi egoitza, auzoan eta herrian ahalik eta integratuen Egurtzegi etxean bezala sentitzeko diseinatutako egoitza da. Egun indarrean den erresidentzia-eredua eraldatzera dator. Matia Fundazioa eta Institutua izan dira sustatzaileak. Haiek egin dute inbertsioa, eta udalak, Matiarekin elkarlanean, herriko ekosisteman inegratzeko ekarpen kualitatiboak egin ditu.

Auzoan erabat integratuta dago; ez isolatuta. Taberna oso argitsu bat du, bere terraza zabal eta guzti, herritarrei irekia. Hori ere herriaren eta egoitzaren arteko lotune da.

BIZI OSORAKO ETXEBIZITZAK

Izen honen pean beste lau etxebizitza dituzte. Egurtzegi egoitzaren behealdean daude kokatuak. Etxebizitza hauek oso handiak dira. 80 edo 100 metro kuadrokoak. Horiak daude pentsatuta, zaintza pertsonalizatua behar duten pertsonak bizi izateko, egoitza batean bere burua ikusten ez badute, edo norbere zaintzailea badute. Zaintzailea izan daiteke lotura afektibogatik zaintzaile dena (bikotekidea, seme edo alaba, gurasoa, adiskidea...) edo profesionala, hots, soldata baten truke lan egiten duena.

Etxebizitza hauek bi logela independente (zainduarena eta zaintzailearena) dituzte, bakoitza bere komunarekin, eta espazio komun zabal bat, non sukaldea eta egongela-jangela dituzten.



Garbitegia da Txirikordako espazio komunetako bat

concertadas con la Diputación, y el coste máximo suele ser de 2000 euros (la mitad).

VIVIENDAS PARA TODA LA VIDA

Bajo este nombre cuentan con otras cuatro viviendas. Están ubicadas en la parte baja de la residencia Egurtzegi. Estas viviendas son muy grandes, de 80 o 100 metros cuadrados. Están pensadas para que vivan personas que necesitan un cuidado personalizado, si no se ven a sí mismas en una residencia o si tienen su propio cuidador. La persona cuidadora puede serlo por vínculo afectivo (pareja, hijo o hija, progenitor, amistad...) o profesional, es decir, alguien que trabaja a cambio de un salario.

Estas viviendas disponen de dos habitaciones independientes (la de la persona cuidada y la de la persona cuidadora), cada una con su propio baño, y un amplio espacio común donde tienen la cocina y el salón-comedor.



Paraje zoragarrian dago Egurtzegi egoitza, auzoan eta herrian ahalik eta integratuen

Erkuden Aldaz

MATIA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

DIRECTORA DEL INSTITUTO MATIA

Zaintza-ekosistema bat sortzea izan liteke zaintza komunitarioaren helburu behinena: zeinek bere eremuan, gure kasuan Lazkao udalerrian, zaintza zehar-lerro bihurtuko duen ingurugiro bat sortzea. Lazkaoko Udalak Matia Institutuari eskatu dio bide horretan urratsak gidatzeko aholkua, eta erakunde horren eskutik ari da lehen urratsak egiten.

Zaintza diogunean zertaz ari garen, zergatik izan behar duen zehar-lerro, zein diren prozesuaren ezaugarri nagusiak, etab. jakiteko, Erkuden Aldaz andrearekin elkarrizketa hau izan dugu Institutu horrek Donostiako Lugaritzen duen egoitzan.

Han jakin dugu Matia Institutua zaintzaren hobekuntza eta berrikuntzara bideratutako erakundea dela, eta haren metodologia-oinarria ikerketa-ekintza dela. Ideiak sortu, garatu, implementatu, ondorioak atera eta ideia berriak sortzeko etengabeko gurpil batean sartuak direla.

Nola definitzen duzue zaintza kontzeptua Matian?

Zaintza bizitzari eusten dion ekintza da, eta bizitza den eskubideari eustea helburu duen heinean, bera ere eskubide da. Beraz, pertsona guztiek iraupen luzeko zaintzen alorretan, guztiok zaintza beharrik aseta izan ditzagun. beharrezkoak ikusten dugu zaintzan guztiok dagokigun ardura hartzea erantzukidetasunetik, hots, alor instituzionaletik, zerbitzuetatik eta harreman naturaletatik, bai familiaratik eta bai komunitatetik. Horrela lortuko dugu zaintzari era duinean erantzutea.

Arduretako bat, beraz, instituzionala izanik, hor elkartuko dira udal-administrazioa eta zaintza, ezta?

Hori da. Gainera, askotan zaintzari buruzko erabakiak pertsonengandik urrunen dauden estruktura instituzionaletatik hartu ohi dira, eta horrek ekar dezake erantzuna egokiena ez izatea. Besteak beste, era horretan, gure bizi-testuinguruan ditugun baliabideak galtzeko arriskua dugu. Berezko baliabiderik alferrik gal ez dadin, oso garrantzitsua deritzogu, gainerako erakundeekin batera (aldundiak eta gobernauak), udalek zaintzen planifikazioan zuzen-zuzenean esku hartzea. Garrantzitsua deritzogu udalerrian bertan dauden gizarte-zerbitzuek, osasun-zerbitzuak, eta gainerako baliabide guztiek norabide berean lan egitea. Horrela lortuko dugu beharrik asetze hutsetik bizitzak zaintzera iragatea.

Zer zerbitzu-mota eskaintzen die Matiak udalei?

Guk laguntza tekniko eskaini ahal diegu. Pertsona ardatz duen arreta-eredu batean ezagutza dugu eta

Crear un ecosistema de cuidados podría ser el objetivo principal del cuidado comunitario: crear un entorno que convierta el cuidado en algo transversal en cada ámbito, en nuestro caso en el municipio de Lazkao. El Ayuntamiento de Lazkao ha solicitado asesoramiento al Instituto Matia para guiar los pasos en ese camino, y está dando sus primeros pasos de la mano de dicha entidad.

Para saber de qué hablamos cuando decimos "cuidado", por qué debe ser transversal, cuáles son las principales características del proceso, etc., hemos mantenido esta entrevista con la señora Erkuden Aldaz en la sede que dicho Instituto tiene en Lugaritz, San Sebastián. Allí hemos sabido que el Instituto Matia es una entidad orientada a la mejora e innovación del cuidado, y que su base metodológica es la investigación-acción. Están inmersos en una rueda continua de crear ideas, desarrollarlas, implementarlas, sacar conclusiones y generar nuevas ideas.

¿Cómo definís el concepto de cuidado en Matia?

El cuidado es la acción que sostiene la vida y, en la medida en que su objetivo es mantener el derecho que es la vida, es también un derecho en sí mismo. Por lo tanto, es una necesidad que todas las personas deberíamos tener satisfecha. En el ámbito de los cuidados de larga duración, para que todos los tengamos cubiertos, vemos necesario que todos asumamos la responsabilidad que nos corresponde desde la corresponsabilidad; es decir, desde el ámbito insitucional, desde los servicios y desde las relaciones naturales, tanto las familias como la comunidad. Así lograremos responder al cuidado de manera digna.

Siendo una de las responsabilidades la institucional, ahí se unirán la administración municipal y el cuidado, ¿verdad?

Eso es. Además, a menudo las decisiones sobre el cuidado se suelen tomar desde estructuras institucionales alejadas de las personas, y eso puede conllevar que la respuesta no sea la más adecuada. Entre otras cosas, de esa manera corremos el riesgo de perder los recursos que tenemos en nuestro contexto vital. Para que no se desperdicien los recursos propios, consideramos muy importante que, junto con el resto de las instituciones (diputaciones y gobiernos), los ayuntamientos intervengan directamente en la planificación de los cuidados. Consideramos importante que los servicios sociales, los servicios de salud y el resto de los recursos presentes en el propio municipio trabajen en la misma dirección. Así lograremos pasar de la mera satisfacción de necesidades al cuidado de las vidas.

horrek esan nahi du balio zehatz batzuetatik lan egingo dugula. Udalak pertsona ardatz duen eredu batean eta dagozkion balioekin lan egiteko asmo irmoa erakutsi behar du, eta erantzukizuna harena da. Guk prozesuan ezagutza bat eta sistematika bat gehitzen ditugu. Guk ez dakigu nola egin. Hori herrian eta herritarrekin definitu behar da.

Nola egin herri bakoitzarekin erabakitzen da, zuen ezagutza eta sistematikatik abiatuta. Zein dira prozesuaren urrats nagusiak?

Gure metodologiak lau urrats nagusi ditu: diagnostikoa, ekintza-planaren diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa. Diagnostiko fasean ari zarete lanean Lazkaon. Horren helburua da amankomuneko ikuspegi batera iristea. Herria ezagutzen ari gara, zer eragile dituen, bakoitza zer emateko dagoen prest, gizarte-zerbitzuen eskutik datuak jasotzen ari gara, zer zerbitzu diren erabiliak, zein ez, zer prestazio ekonomiko eskaintzen diren...

Hori amaiturik, eta ikuspegi partekatu bat izatera iritsirik, ekintza-plan bat diseinatzen dugu. Zer egingo dugu, noizko, nork izango du ardura eta zer lortuko da.

Inplementazioa dator ondoren. Ekintza-plan hori lurreratu. Gizarte-zerbitzuetan zerbait ikasi behar badute, ikasi, komunitate-mailan egin beharrekoak egin, nola egin, zerbitzuak nola helarazi guztiengana... Ebaluazioa ez da berez urrats bat gehiago, prozesu osoan zehar burutzen den ekintza baizik. Alegia, ebaluazioa jarraitua da, etengabea.

Urrats horiek guztiak egiteko herritarren eta eragileen parte hartzea garrantzitsua al da?

Bai, bai. Hau pertsonen egiten dute; ezinbestekoa da beren parte hartzea. Beharbada, beti ez dugu horrela ikusi. Geu ere bidean ikasten ari gara. Eta ikasi dugu horrelako prozesu bat ez bada parte hartze zabalez egin, herritarren zati bat alde batera geratzen bada edo uzten bada, hori liskar-iturri bihur daitekeela. Herrian zerbitzu-elkargo bat badago, boluntario-sareak badaude, gazte-mugimendurik badago, mugimendu feministarik... horiek guztiak ere prozesuan egotea garrantzitsua da.

Eta guztiaren gainetik, gobernantza-eredu bat dago. Zaintzak transbertsala izan behar du, nahitaez. Zaintzan zerikusia daukatena ez dira gizarte zerbitzuak bakarrik, hezkuntza zinegotziak, hirigintzakoak, kulturakoak... guztiak dute zeregina.

Zer mezu bidali nahi diezu Lazkaoko herritarrei?

Hau denon artean egiten dugula adierazi nahi diet; zaintza eredu aldatu nahi badugu, denok daukagula zer esana; denok eman behar dugula zerbait. Beraz, animatuko nituzke parta hartzera. Sare sozialak, telebista, eta abar, hor daude, eta ondo daude, baina tarteka alde batera utzi eta inguruan dituztenei begiratzera animatuko nituzke, haiekin harremana izatera eta eskuzabal izatera.



¿Qué tipo de servicio ofrece Matia a los ayuntamientos?

Nosotros podemos ofrecerles asistencia técnica. Tenemos conocimiento en un modelo de atención centrado en la persona y eso significa que trabajaremos desde unos valores concretos. El ayuntamiento debe mostrar una voluntad firme de trabajar en un modelo centrado en la persona y con sus valores correspondientes, y la responsabilidad es suya. Nosotros aportamos un conocimiento y una sistemática al proceso. Nosotros no sabemos cómo hacerlo. Eso debe definirse en el pueblo y con los ciudadanos.

Cómo hacerlo se decide con cada pueblo, partiendo de vuestro conocimiento y sistemática. ¿Cuáles son los pasos principales del proceso?

Nuestra metodología tiene cuatro pasos principales: diagnóstico, diseño del plan de acción, implementación y evaluación. En Lazkao estáis trabajando en la fase de diagnóstico. El objetivo de esta es llegar a una visión común. Estamos conociendo el pueblo, qué agentes tiene, qué está dispuesto a aportar cada uno; estamos recogiendo datos de la mano de los servicios sociales, qué servicios se utilizan, cuáles no, qué prestaciones económicas se ofrecen.... Una vez finalizado esto, y habiendo llegado a una visión compartida, diseñamos un plan de acción. Qué haremos, para cuándo, quién será responsable y qué se logrará.

Después viene la implementación. Aterrizar ese plan de acción. Si en los servicios sociales tienen que aprender algo, que lo aprendan; hacer lo que haya que hacer a nivel comunitario, cómo hacerlo, cómo hacer llegar los servicios a todos.... La evaluación no es propiamente un paso más, sino una acción que se realiza durante todo el proceso. Es decir, la evaluación es continua, constante.

¿Es importante la participación de la ciudadanía y agentes para dar todos esos pasos?

Sí, sí. Esto lo hacen las personas; su participación es imprescindible. Quizás no siempre lo hemos visto así. Nosotros también estamos aprendiendo en el camino. Y hemos aprendido que, si un proceso de este tipo no se hace con una participación amplia, si una parte de la ciudadanía se queda o se deja al margen, eso puede convertirse en una fuente de conflicto. Si en el pueblo hay una asociación de servicios, si hay redes de voluntarios, si hay movimiento juvenil, movimiento feminista... es importante que todos ellos también estén en el proceso. Y por encima de todo, hay un modelo de gobernanza. El cuidado debe ser transversal, necesariamente. Quienes tienen que ver con el cuidado no son solo los servicios sociales; los concejales de educación, urbanismo, cultura... todos tienen una tarea.

¿Qué mensaje quieres enviar a la ciudadanía de Lazkao?

Quiero decirles que esto lo hacemos entre todos; que, si queremos cambiar el modelo de cuidados, todos tenemos algo que decir; todos tenemos que aportar algo. Por lo tanto, los animaría a participar. Las redes sociales, la televisión, etc. están ahí, y están bien, pero los animaría a dejarlas de lado de vez en cuando y a mirar a quienes tienen alrededor, a relacionarse con ellos y a ser generosos.



FESTA ZORION- TSUAK IZAN



2026/
06/06

ehbildu

Lazkaon
BATEGIN.